



# IPARRALDE DBHI

Sanduzelaiko etorbidea 16,

PK. 31012 Iruñea

Tlf. 848 43 17 29

email: [iparraldebhi@educacion.navarra.es](mailto:iparraldebhi@educacion.navarra.es)

web: <https://iparraldebhi.educacion.navarra.es/web/>

GURASOENDAKO OHAR OROKORRAK

## AURKIBIDEA

<b>Aurkezpena</b>	<b>3</b>
<b>Covid-19-aren aurreko Kontingentzia Plana</b>	<b>3</b>
<b>Ordutegia</b>	<b>3</b>
<b>Webgunea</b>	<b>4</b>
<b>Idazkaritza</b>	<b>4</b>
<b>Eskola Garraioa</b>	<b>4</b>
<b>Egutegia</b>	<b>5</b>
<b>Notak (Educa)</b>	<b>5</b>
<b>Agenda</b>	<b>5</b>
<b>Azterketak</b>	<b>6</b>
<b>Faltak eta atzerapenak</b>	<b>6</b>
<b>Ikasleak gaixotzean edo istripu bat izatean.</b>	<b>6</b>
<b>Ikasleak ikastetxetik ateratzeko</b>	<b>7</b>
<b>Testu Liburuen Doakotasun Programa</b>	<b>7</b>
<b>Hezkuntzaren Eraldaketa Digitala Ahalbidetzeko Programa / Chromebook</b>	<b>7</b>
<b>Chromebooken erabilerarako dekalogo</b>	<b>7</b>
<b>Google Classroom-en erabilera ikastetxean</b>	<b>8</b>
<b>Kudeaketa ekonomikoa</b>	<b>8</b>
<b>Bizikidetzaren laburpena</b>	<b>9</b>
<b>Mugikorrak</b>	<b>10</b>
<b>Aniztasunaren trataera</b>	<b>11</b>
<b>Hurrengo mailara promozionatzea</b>	<b>11</b>
<b>Ikasketetarako gomendioak - Gurasoek ikasleak laguntzeko aholkuak</b>	<b>11</b>
<b>Gosaria eta hamaiketakoa</b>	<b>12</b>
<b>Zuzendaritza Taldea eta Orientatzailea</b>	<b>13</b>
<b>Tutoreak</b>	<b>13</b>
<b>Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZL)</b>	<b>13</b>
<b>Irakasleen zerrenda</b>	<b>14</b>

## 1. Aurkezpena

Ongi etorri Iparalde DBHira. Ikasturte berri bati ekinen diogu eta liburuxka honetan aurkituko duzue kurtso honen inguruko informazioa eta zentroaren inguruko informazio orokorra. Gogoz ekinen diogu lanari eta hezkuntza komunitate osoaren laguntzaz, kurtso arrakastatsua izatea espero dugu.

Hauek dira aurten ikastetxean ditugun taldeak eta bakoitzeko ikasle kopurua.

Taldea	1 A	1 B	1 C	1 D	1 E	2 A	2 B	2 C	2 D	2 E	2 F	T M	3 A	3 B	3 C	3 D	4 A	4 B	4 C	4 D	Guztira
Ikasleak	20	18	20	19	20	23	22	23	21	20	21	5 <sup>1</sup>	21	22	19	4	20	20	22	20	375

## 2. Covid-19-aren aurreko Kontingentzia Plana

2021/22 ikasturtean zehar, COVID-19-aren pandemiak irautean duen bitartean, ikastetxean ikasleen eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko helburuarekin diseinatutako [Covid-19-aren aurreko Kontingentzia Plana](#) indarrean egongo da. Horretarako neurri batzuez osatutako jarduketa plana definitu da, hainbat esparru hartzen dituenak hala nola, bete beharreko segurtasun eta higiene neurriak, espazioen, pertsonen sarrera/irteeren eta desplazamenduaren eta materialen kudeaketaren antolakuntza neurri orokorrak, antolakuntza neurri akademikoak eta Covid-19 kasu baten aurrean jarraitu beharreko protokoloa. Hezkuntza komunitate osoaren ardura izanen da bertan adierazitakoa betetzea.

Plan hau espazioen eta pertsonen joan-etorrien antolaketari dagokionez sektore blokeagarrien sisteman oinarritzen da. Sektore bakoitzean hainbat pertsona egonen dira (ikasle eta irakasleak) eta haiei egokitutako hainbat espazio. Blokeoa sektore horien arteko iragazkortasunarekin lotua dago.

Egoera epidemiologikoa osasun-agintariek zehaztuko dute, eta maila desberdinak ditu, osasun-egoeraren larritasunaren arabera eta kutsatzeko arriskuaren arabera. Honen arabera Kontingentzia planak 2 egoera posible aurreikusten ditu. Momentuko egoerak ikastetxeetako sektoreen arteko blokeo-mailaren gaineko erabakia gidatuko du. Egoerarik murriztaileenean, sektoreen arteko komunikaziorik ez da izanen eta irakaskuntza presentzialetik telematikora pasa daiteke, baina egoera epidemiologikoaren arabera, haien iragazkortasuna handitu daiteke.

## 3. Ordutegia

Eskolak 8:15ean hasi eta 14:15ean bukatzen dira. 8:10ean eta 11:25ean 5 minutuko musika tarte entzungai izanen da ikastetxe guztian. Musika tarte bukatu baino lehen ikasleak eta irakasleak gela barnean egon behar dute. Eguneko beste saio aldaketetan musika tarte 2 minutukoa izanen da.

8:17an institutuko ateak itxiko dira eta 8:22 arte ezin izanen du inork sartu. Berandu iritsitako ikasleak gelara joanen dira eta dagokion irakasleak berandutzea jarriko dio Educan. 8:25 baino beranduago etortzen diren ikasleak kanpoan geratuko dira saioa bukatu arte. Berandu iritsi diren ikasleen familiei ikastetxeak emaila bidaliko dio jakinarazteko.

Medikuaren agiriarekin edozein ordutan sartu ahalko dira ikasleak eta zuzenean gelara joanen dira.

SAIOAK	ORDUAK
1	08:15 - 09:10
2	09:10 - 10:05
3	10:05 - 11:00
Atsedena aldia	11:00 - 11:30
4	11:30 - 12:25
5	12:25 - 13:20
6	13:20 - 14:15

<sup>1</sup> Ikasle hauek haien errefentziako geletan sartuta daude ere

Ikasleak ikastetxera sartu ahal izateko maskarekin etorri behar dira. Ekarri ezean, familiei deituko zaie maskara ekar dezatela eskatzeko eta bitartean ikasleak ikastetxetik kanpo itxoingo du.

Azken saioaren ostean ikasleek gelak bilduta eta garbi utziko dituzte. Horretarako tutoreek ikasleei funtzio desberdinak eman izanen dizkiete: arbela garbitu, erratza pasa, argiak itzali. Ikasle guztien artean lurreko paperak bilduko dituzte.

#### 4. Webgunea

Zentroak maiztasunez eguneratzen den webgunea dauka. Bertan informazio asko daukazue eskuragarri: berriak, dokumentuak, Educarako lotura, azterketen datak, jarduera osagarrien egutegia, etab.. Hau da gunearen helbidea:

<https://iparraldedbhi.educacion.navarra.es/web/>

#### 5. Idazkaritza

Zentroko idazkaritza-bulegoarenko jendearentzako arretako ordutegia 8:30etik 14:30era da. Idazkaritzan edozein tramite egin ahal izateko aurretik telefonoz zita eskatu behar da (848431729), jende pilaketak sahiesteko.

#### 6. Eskola Garraioa

Gure zentroak beste bi ikastetxerekin batera partekatuko du eskola garraioa. Biurdana BHI eta IES Julio Caro Baroja institutuekin hain zuzen ere. Autobus-lineen informazioa (ibilbideak, geltokiak eta ordutegiak) webgunean dago. KASU! adierazita dauden geltokien orduak gutxi gora beherakoak dira. Gomendatzen da geltokira 5-10 minutu lehenago iristea.

2021-22 ikasturtean zehar, Covid-19ren pandemia egoera dela eta Indarrean den legediaren arabera garraiorako eskubidea duten ikasle guztien garraioa bermatuko da. Baina arau bereziak egongo dira garraioa erabiltzeko momentuan [Kontingentzia Planean](#) azaltzen den bezala, hala nola, maskararen derrigorrezko erabilera.

## 7. Egutegia

IPARRALDE		IPARRALDE DBHI 2021-2022 IKASTURTEKO ESKOLA EGUTEGIA																																				
IRAILA					URRIA					AZAROA					ABENDUA					URTARRILA																		
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I				
	1	2	3	4	5					1	2	3		1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5								1	2	
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	9	9	10	11	12	13	14		6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9			
14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	16	16	17	18	19	20	21		13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16			
21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28		20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23			
28	29	30					25	26	27	28	29	30	31	29	30							27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30			
																												31										
OTSAILA					MARTXOA					APIRILA					MAIATZA					EKAINA																		
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I				
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6				1	2	3								1												
7	8	9	10	11	12	13	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10	2	3	4	5	6	7	8		6	7	8	9	10	11	12			
14	15	16	17	18	19	20	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17	9	10	11	12	13	14	15		13	14	15	16	17	18	19			
21	22	23	24	25	26	27	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24	16	17	18	19	20	21	22		20	21	22	23	24	25	26			
28							28	29	30	31				25	26	27	28	29	30		23	24	25	26	27	28	29		27	28	29	30						
																													30	31								

  

	Ikasturtearen hasiera eta amaiera <i>Inicio y fin de curso</i>		Kalifikazioak Educan argitaratzea <i>Calificaciones en Educa</i>		Errepaso klaseak <i>Klases de repaso</i>
	Jai egunak <i>Festivos</i>		Eskola egunak ez direnak <i>Días no lectivos</i>		Ohiko deialdiko azterketak <i>Exámenes conv. ordinaria</i>
					Ez-ohiko deialdiko azterketak <i>Exámenes conv. extraordinaria</i>

  

ORDUTEGIA-HORARIO
Goizeko jardunaldia: Sarrera 8:15ean - Irteera 14:15ean <i>Jornada de mañana: Inicio clases 8:15 - Fin clases 14:15</i>

  

AURREKO IKASTURTEKO GAINDITUGABEEN AZTERKETAK EXÁMENES DE PENDIENTES DEL CURSO ANTERIOR
1. azterketak: urtarrilaren 12tik 21ra <i>1º examen: del 12 al 21 de enero</i>
2. azterketak: apirilaren 4tik 13ra <i>2º examen: del 4 al 13 de abril</i>
Ez ohiko azterketak: ekaineran 14tik 16ra, arratsaldez <i>Examen extraordinario: del 14 al 16 de junio</i>

## 8. Notak (Educa)

Hiruhileko bakoitzaren ondoren eta kurtso bukaeran ikasleen kalifikazioak Educa bidez ikusi ahalko dira, egutegian zehaztutako egunetan. Honetarako <https://educa.navarra.es/familias/#/LoginFrame/Login> helbidean sartu behar duzue edo zentroko webgunean Educarako sarbidean. Telefono mugikorretarako App-a existitzen da eta deskargatuz telefonotik modu errazean ikusi ahalko dituzue.

Educan sartzeko sarbidea galdu, ahaztu edo inoiz erabili ez baduzue zentroko webgunean pasahitza eskuratzeko jarraibideak dituzue edo zentroko idazkaritzan administrariari eska diezaiokezue.

## 9. Agenda

Iparralde DBHiko ikasle guztiek eskola agenda bat jasoko dute kurtso hasieran. Eskola agenda hau baliagarria izanen da ikasleei lan antolaketa egoki bat egiten laguntzeko, baita familien eta irakasleen arteko komunikazio tresna gisa.

Ikasle bakoitza izanen da bere agendaren jabe, arduradun eta erantzule. Beraz, haiei dagokie egunero-egunero institutura ekartzea eta behar bezala zaintzea. Tutoreak eta gurasoak arduratuko dira ikasleek lan hori egiten dutela ziurtatzeaz.

Ikasleak bere agenda galduz gero, eredu bereko beste agenda bat lortu beharko du, horretarako zentroko idazkaritzan erosit.

Eskola agendak ez dira dokumentu pribatuak. Hau da, gurasoen eta irakasleen arteko komunikabidea diren heinean, eta ikasleen lana gainbegiratzeko eta laguntzeko bidea diren heinean, gurasoek eta irakasleek edozein unetan begira ditzakete agenda horiek. Beraz, ikasleek beste inon idatzi beharko dituzte nagusiek irakurtzerik ez dituzten gauzak.

## 10. Azterketak

Zentroko webgunean azterketen egutegia dago. Bertan DBH 1. eta 2. mailako talde guztien azterketen datak agertuko dira.

## 11. Faltak eta atzerapenak

Ikasleen huts egiteak eta atzerapenak (gelara berandu iristeagatik) irakasleek Educan erregistratuko dituzte eta guraso eta ikasleek bertan ikusi ahalko dituzue.

Gaixotasunengatik eta justifikatutzat jo daitezkeen beste arrazoiengatik ikasleren batek huts egitean, justifikantea bete eta ikaslea institutura itzulitakoan tutoreari eman beharko zaio **3 eskola-eguneko epean**.

Ikasleak huts eginen duen egunean azterketa edota jarduera osagarriren bat balu, gurasoek egunean berean telefonoz deituko dute azterketa eginen ez duela edota txangora joango ez dela abisatzeko.

Justifikanteak atezaintzan eskatu ahalko dira eta zentroko webgunetik deskargatu ahalko dira.

## 12. Ikasleak gaixotzean edo istripu bat izatean.

Zentroan dagoela, ikasle bat gaixo badago edo istripuren bat izan badu, honela jokatu dugu:

1. Atezaintzatik ikaslearen etxera deituko dute, familiak honen ardura har dezan.
2. Ikasleak gaixotzean institututik ateratzeko dokumentu honetako 13. puntuan zehaztutakoaren arabera jokatu da.
3. Familiak erantzun ezean, eta beharrezkoa bada, zaintzako irakasle batek medikuarengana lagunduko dio, baina kontuan izan:
  - a. DBH 1. eta 2. mailako ikasleak Osasun Etxera edo larria bada Nafarroako Ospitale Gunera (publikoan) eramanez dira.
  - DBH 3. mailatik aurrera ikasleek eskola aseguru dute. Arreta San Fermin Kliniketan (Galizia etorbidean) emango zaie.
4. Ikasleari ez diogu inongo kasutan sendagairik emanen.

Komeni da ikasleren batek zentroak jakin beharreko diagnostikoren bat badu lehenbailehen familiak komunikatzea.

COVID-19arekin konpatibleak diren sintomak dituzten pertsonak, kuarentenan daudenak, ala diagnostikatuak izan direnak ez dira ikastetxera joanen. Sintomak ikastetxean dagoelarik ematen baldin badira [Kontigentzia Planean](#) ezartzen denaren arabera jokatu da.

### 13. Ikasleak ikastetxetik ateratzeko

Goizean zehar ikasleak ikastetxetik ateratzeko bi aukera daude:

1. Pertsona heldu batek institutuan hartuko du eta atezaintzako ikastetxetik ateratzeko agiria sinatuko du.
2. Ikaslearen arduradunak (aita, ama edo legezko tutoreak) mezu elektronikoko bat bidal dezake ikastetxeko helbidera: [iesoiparralde@educacion.navarra.es](mailto:iesoiparralde@educacion.navarra.es). Mezuan ikastetxean ikasleen gurasoen kontaktu gisa agertzen den posta elektronikotik bidali beharko da. Ikaslea, irteeraren arrazoa eta ordua zehaztu beharko ditu, eta egunean zehar itzuliko den zehaztu (medikuaren hitzorduen kasuan, adibidez).
3. Gogoan izan ondoren ikasleek beren hutsegitearen frogagiria eman behar diotela tutoreari.

### 14. Testu Liburuaren Doakotasun Programa

Doakotasun programaren barruan dauden ikasleek maileguan jasotzen dituzten testu liburuak zaintzeko konpromisoa hartzen dute, jaso dituzten egoera berean kurtso amaieran itzuli beharko dituztelarik. Ikasturte amaieran liburuak itzultzeko data bakarria ezarriko da. Liburua ez itzultzekotan edo egoera txarrean itzultzekotan, liburu berria erosi beharko du institutuak. Honen kostua gurasoei kontutik pasako zaie. Ordainketari uko egitekotan ikaslea Programak adierazten duenaren arabera hurrengo ikasturtetan liburuak jasotzeko eskubidea galduko luke.

Gurasoek edo arduradunek programa barnean egoteari uko egiten ahal diote, horretarako ikastetxeko idazkaritzan edo webgunean prestatuturik dagoen inprimakia beteko da.

### 15. Hezkuntzaren Eraldaketa Digitala Ahalbidetzeko Programa / Chromebook

Zentroak Hezkuntzaren Eraldaketa Digitala Ahalbidetzeko Programan parte hartzen du eta horren ondorioz urtero DBH 1. mailako ikasleei maileguan uzteko Chromebook motako ekipu informatikoen dotazioa iristen da. Horren inguruko informazioa irailan zehar bidaliko zaie DBH 1. mailako gurasoei.

#### *Chromebooken erabilerarako dekalogo*

- a. Erabileraren inguruan
  1. Chromebooka egunero guztiz kargatuta ekarri behar da ikastetxera (6 saioak irauteko).
  2. Irakasleak esaten duen saio eta momentuan bakarrik erabiliko dugu eta gelako eremura mugatuko da, atsedendian gelatik ezinen delarik atera.
  3. Bestelako momentuetan Chromebooka gordeta (motxilan, takilan,...) izanen dugu, ez mahai gainean.
  4. Oso garrantzitsua da pasahitza ezkutuan gordetzea eta inori ez komunikatzea.
  5. Erabilera bukatu bezain laster pantaila jaitsiko dugu, baita tokiz mugitzean (komunera goazenean adibidez) ekipoa bakarrik gelditzen bada, inork gure izenean erabili ezin dezan.
  6. Ekipu bakoitza esleitu zaion ikaslearen ardurapekoa da, bera izanen da ekipuari gertatzen zaion edozein intzidentziaren arduradun nagusia.
  7. Komunikazioak. Jarraitu hurrengo zehaztapenak komunikazio telematikoetan, nola bestelakoetan.
    - Komunikatzean errespetuz jokatu, egokiak diren edukiekin eta eskolako testuingurura mugatuz.

- Erabili hizkuntza erregistro egokia beti.
- b. Gailua ongi zaintzea
  8. Chromebooka hezkuntzatik jasotako zorroan gorde eta garraiatuko dugu beti, klase batetik bestera eramateko ere bai, pantailatik eustea saihestuz.
  9. Ikasleen betebeharra da ekipoa, kargadorea eta babes-zorroa zaindu eta garbi edukitzea, ordenagailuaren gainean eta ordenagailuan bertan ere idatzi gabe (errotuladoreekin, zuzentzaileekin), eta pertsonalizatuko duen eranskailurik (pegatinarik) jarri gabe.
  10. Ekipoek dituzten etiketak errespetatu behar dira.
  11. Gailuan zeinahi osagarri (USB, saguak, memoria txartelak, etab.) entxufatzean, kontuz eta pazientziaz egingo da, konexioak hondatzea saihesteko.
  12. Aireztapeneko saretak libre, estali gabe, uztea komeni da.
  13. Teklatu gainean ez da ezer utziko, bereziki idazteko erabiltzen ditugun gauzak (boligrafoa, borragoma, errotuladorea, konpasa...). Jan edanetik urrun erabili. Saihestu pantaila tresna zorrotzekin ukitzea.
  14. Pantaila garbitzeko zapi lehor bat erabili behar da. Zuntz antiestatikoak baditu, hobeki. Ez da disolbatzailerik erabili behar.
- c. Matxuren aurrean egin beharrekoa
  15. Ekipoak kalte edo matxuraren bat badu lehenbailehen **tutoreari edo irakasle bati eman**, berak zentroko Chromebooken arduradunari eman diezaion.

### *Google Classroom-en erabilera ikastetxean*

Classroom Google tresna bat da. Ikasleekin modu kolaboratiboan gela bat Interneten bidez (birtualki) kudeatzeko erabili daiteke. Asko dira aplikazio hau ikasleekin erabiltzen duten irakasleak. Tresna honen erabileraren inguruan arau hauek ditugu ikastetxean:

1. Irakasleak beti ikasleekin saioa daukanean publikatuko du material berria (apunteak, ariketak, etab.) eta ikasleei ohartaraziko die. Hortaz ikasleek ez dute etxean Classroomen sartu behar irakasleak ezer berria jarri duen jakiteko.
2. Ikasleek Classroomeko mezu guztiak desgaituta izanen dituzte (ikastetxean eginen dute irakasle batekin). Modu honetan, ez dute ikastetxetik kanpo mezurik jasoko.
3. Ikasleek Classroom bidez entregatutako jardueren kalifikazioa irakaslearekin saioa dutenean jasoko dute, honek abisatuko dielarik. Ez dira kalifikazioak etxean dauden bitartean publikatuko.

## 16. Kudeaketa ekonomikoa

Ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa errazteko asmoz ikasleen gastuak helbideraketen bidez kobratuko ditugu. Alde batetik, eskola kontseiluan adostu zen bezala, 50€ko kuota finko bat pasako da fotokopientzako eta geletako materialerako. Kuota hau 25€ko bi ordainagiritan banatuko da; bat azaroaren hasieran eta bestea martxoaren hasieran. Kobrantza egin aurretik honen berri emango da posta elektronikoaren bitartez.

Bestalde, ikastetxetik kanpo egingo diren jarduera osagarrietarako (irteerak) zenbatekoak, egin ondoren kobratuko dira.

Kobrantzen prozedura hauxe izango da:



1. Edozein gastu kobratu aurretik abisua emango zaizue kantitatea eta data (gutxi gorabehera) adieraziz.
2. Adierazitako egunetan kobrantza egingo da kontu korrontean.

Emandako kontu korrontean ez beste batean kobratzea nahi izatekotan Administrazioako bulegoan adierazi beharko da.

## 17. Bizikidetzaren laburpena

Ikastetxeko bizikidetzaren planean, 47/2010 Foru Dekretuan eta 204/2010 Foru Aginduan oinarritua dagoen ikastetxeko arautegia dago. Dokumentu hau epe laburrean webgunean eguneratuta egonen da.

Ikastetxeko bizikidetzaren ona izan dadin behar beharrezkoa da denen artean bertan azaltzen diren arauen aurrean errespetuzko jarrera bat edukitzea.

Ikasleak duen jarreraren inguruko informazioa *Educa* bidez jasoko dute familiek. Irakasleek ohartarazpenak edo oharra bidali ahal izanen dituzte. Ohar hauen berri emateko, familiei *Educa* adierazitako emailera mezu bat iritsiko zaie *Educa* irakurri gabeko mezu bat dutela abisatuz. *Educa* sartu eta mezuan adieraziko zaie zein den oharra. Hauek hainbat motatakoak izan daitezke:

- **PREBENTZIOZKO IDATZOHARRAK (OHARTARAZPENA) edo INDARGARRI POSITIBOA:**
  - Ikasgela barruan gertatzen diren portaerendako (bizikidetzaren kontrakoak ala aldekoak, positiboak).
  - Honek ez du bizikidetzaren txostena sortuko.
  - Familiari eta tutoreari bidaliko zaie.
- **OHAR ARINA: BIZIKIDETZAREN KONTRAKO PORTAERA (BKP)**
  - Ikasgelan edota kanpoan gertatzen denean.
  - Txostena sortu eta bizikidetzaren arduradunari eta ikasketaburuari iritsiko zaie.
  - Familiari ere iritsiko zaie
  - Hezkuntza neurria irakasleak hartu eta betearazi beharko du.
  - Irakasleak ikaslea ezagutzen ez badu zuzendaritzak hartuko du neurria.
- **OHAR LARRIA: BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIA DEN PORTAERA (BBKP)**
  - Ikasgelan edota kanpoan gertatzen denean.
  - Honek bizikidetzaren txostena sortuko du beti. Ikasketaburuari eta bizikidetzaren arduradunari iritsiko zaie.
  - Zuzendaritzak kudeatuko du eta hezkuntza neurria hartuko du. Hartutako hezkuntza neurriaren berri familiari emanen zaio eta dokumentua email bidez bidaliko zaio.

Familia ikasleen hutsegiteen jarraipenaz arduratuko da EDUCAn begiraturik. Ikastetxeak, ikasle batek 12 hutsegite (edo 12ren multiploak) justifikatu gabe dituztenean familiari emailaz abisatuko dio, beraiek hartu beharreko neurriak hartzeko. Ikastetxera etortzea derrigorrezkoa da.

ATZERAPENEN PILAKETENGATIK ETA PARTEEN PILAKETENGATIK EZARTZEN DIREN NEURRIAK:

	Familiari jakinarazi	Familiari pilaketengatik jakinarazpena	Pilaketengatik Hezkuntza-neurriak
JUSTIFIKATU GABEKO ATZERAPENAK	6rekin: administrariak familiari	Justifikatu gabeko 12ekin eta 12en multiploekin. Eskutitzez ikasle bidez  Ikasleak etxean dokumentua sinatu ondoren zuzendaritzara ekarri beharko du, hezkuntza neurria aplikatzen den azkeneko egunean beranduenez.	Hilabete berean bost atzerapen pilatzean atsedendaldi bat lanean.
			12rekin: 7. ordu batean geratu hainbat lan egiten.
			24rekin: hiru 7. ordutan edo arratsalde batez (3h) geratu hainbat lan egiten.
			36rekin: egun batez ikastetxean sartu eta/edo ateratzeko eskola ordutegia aldatzea.
OHAR ARINAK	EDUCA bidez oharra irakasleak idazterakoan	8ren pilaketagatik eta 8ren multiploekin  BBKP portaera bihurtzen da eta BBKPren jakinarazpen prozedura jarraitzen da (zuzendaritzak familiari deitu eta dokumentua emailaz bidali)	1.pilaketa 8. ohar arin pilaketa: BBKP bihurtzen da- Hiru eguneko ordutegi aldaketa eta ebaluazio hortako jarduera osagarrietan parte ez hartzea.
			2.pilaketa. 16. ohar arin: BBKP bihurtzen da. 4 eguneko kanporaketa eta ikasturte osoko jarduera osagarrietara ez joatea.
			3. pilaketa: 7 eguneko kanporaketa.
			4. pilaketa: Beste batzuk.

Ikasketa buruztatik hezkuntza neurrien **BI** jakinarazpen jasotzen dituen ikasleak ez du ikasturte amaierako irteeretan ezta ikas bidaian / kanpaldian parte hartuko.

## 18. Mugikorrak

Zentroan sakelako telefonoen erabilera debekatuta dago, ez bada gelako jarduera baterako erabiliko. Horrelako kasuetan, irakasleak familiei mezu bat helaraziko die zein irakasgaitan eta zein saiotan erabiliko den zehaztuz. Zentroak ez du galdutako mugikorren ardura hartuko. Irakasle batek ikasle bati erabilera okerragatik telefonoa hartuz gero, guraso edo tutore legalek etorri beharko dute dispositiboaren bila.

Ikasleen ardura da egunero institutuan bidaltzen diren lanak edo azterketen datak agendan apuntatzea eta komeni da gurasoak seme-alaben agendak egunero gainbegiratzea haien jarraipena egiteko, gehien bat DBHko lehenengo ikasturteetan.

Agendaren bukaeran badira orrialde batzuk gurasoen eta irakasleen arteko komunikazio zuzena ahalbidetzen dutenak. Ikasleek ezin dituzte orrialde horiek aldatu, desitxuratu edo kendu.

## 19. Aniztasunaren trataera

Iparralde DBHIn aniztasunari arreta honako aukerekin ematen diogu:

- Talde heterogeneoak egiten ditugu.
- Gelako ikasle kopurua jaitsi (2 modu):
  - Talde gehiago sortuz.
  - Bikoizketak eginez.
- Irakaskuntza partekatua.
- Programa eleanitza.
- Aberastasun gela (DBH 1.mailan)
- Talde malgua (CBU gela)
- Pedagogia terapeutikoko irakasleak gelan
- Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa (IEHP)
- Hautazko irakasgaien eskaintza.

DBH1	DBH2	DBH3	DBH 4
Frantsesa (DBH osoan)	Frantsesa (DBH osoan)	Frantsesa (DBH osoan)	Frantsesa (DBH osoan)
Plastika Tailerra	Musika Tailerra	Kultura Klasikoa	Informatika (IKT)
Komunikazio Tailerra	Baratza Tailerra	Robotika Tailerra	Plastika
		Ekintzailtza eta Enpresa Jardueraren Hastapena	Musika
			Filosofia

## 20. Hurrengo mailara promozionatzea

Hurrengo mailara honako ikasleek promozionatuko dute:

- Dena gainditu dutenek.
- Ordura arte egindako irakasgaietatik gehienez ere bitan ebaluazio negatiboa dutenak, baldin eta irakasgai horiek ez badira Matematika eta Gaztelania edo Matematika eta Euskara.
- Ikaslea errepikatzailea bada, promozioa automatikoa izanen da.

## 21. Ikasketetarako gomendioak - Gurasoek ikasleak laguntzeko aholkuak

- Ahalegina ezinbestekoa dela kontuan hartu.
- Bila iezaiozu lanerako leku iraunkorra, materialaz hornitua eta estudiorako lasaia.
- Lor ezazu etxean estudiorako eta irakurtzeko giro isila.
- Bultza ezazu egunero etxean lan egitera, tartean 10 minutuko atsedendialdiak hartuz.
- Tarte honetan gailu elektronikoa eta informatikoa, lanerako behar ez baditu, lan egiten ari den gelatik kanpo egotea komeni da.

- Galde iezaiozu maiz, lasai eta interesaturik, lanaz eta institutuko bizimoduaz.
- Aipa iezaiozu maizago estudiorako dituen gaitasunak zailtasunak baino.
- Erakuts iezaiozu bere gaitasunen arabera bere buruari exijitzen.
- Emazkiozu irakurtzeko eta idazteko bizigarri eta bitartekoak.
- Eskaini iezaiozu kirola eta eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera.
- Lagundu iezaiozu bokazioa aurkitzen, bere nahiak errespetatuz.
- Errespeta itzazu bere nortasuna eta izaera, beti ere besteen eskubideen mugak zainduz.
- Eskaini iezaiozu bizitzaren ikuspuntu baikorra.
- Ohitu ezazu modu egokian elikatzen, adina eta ikaste lana kontuan hartuz. Zuk dakizu zer behar duen, berak zer duen gustukoa.
- Bermatu egunero 8 edo 9 orduko loaldia egin dezan. Beharrezkoak ditu.
- Bilatu beti institutuak duen alde ona; okerrik balego, joan zaitez ikastetxera hitz egitera. Bazter ezazu emaitza txarren arrazoi bakarria institutuko akatsak izatea.
- Erraztu eta anima ezazu talde lanean aritzera: utzi lagunak etxera etortzen edo zure seme-alaba besteenetara joaten.
- Bultza ezazu bere adinerako egokiak diren eta gustuko dituen boluntario lanetan eta jardueretan aritzera.

## 22. Gosaria eta hamaiketakoa

Gosariak eragin zuzena du ikasleen ikaskuntza prozesuan eta eskolan duten errendimenduan. Azkar gosaltzeak edo klasera baraurik etortzeak ikasleen adierazmenean, memorian, sorkuntzan eta problemak ebazteko gaitasunean eragin dezake. Horregatik, eta institutuan sartzeko ordua goiztiarra izan arren, gomendagarria da ongi gosaltzeko astia hartzea eta gosaria honakoaz osatuta egotea: esnea edo esnekiak, fruta eta zerealak. Honakoak ekiditen saiatuko gara: azukreztatutako edariak, gehiegizko hidrato eta gantzadun elikagaiak edo opil industrialak.

Gosaria bezain garrantzitsua da atsedenealdian hartzen duten hamaiketakoa. Halakorik ez hartzeak eragin txarra izan dezake ikasleen errendimenduan eta ondorioz gosarirako emandako gomendio berak jarraitzea komeni da: esnea edo esnekiak, fruta eta zerealak (bokata). Honakoak ekiditen saiatuko gara: zuku eta batido industrialak, opil industrialak, etab. Hamaiketakoari lotuta, bilgarriari erreparatzeko eskaera ere luzatu nahi duizuegu. Zentrotik berrerabil daitezkeen bilgarriak erabiltzera (tuperrak, boc´n´roll delakoak, etab.) animatzen zaituztegu; aluminio paperaren eta film gardenaren erabilera murrizte aldera.

### 23. Zuzendaritza Taldea eta Orientatzailea

Zuzendaritza Taldea			
Zuzendaria	Mikel Ripodas	Zuzendariordea	Josune Azpirotz
Ikasketaburua	Patxi Gorriz	Idazkaria	María Cuellar
Orientatzailea			
Orientatzailea	Emilio Galera		

### 24. Tutoreak

Taldea	Tutorea	Taldea	Tutorea	Taldea	Tutorea	Taldea	Tutorea
1A	Mikel Lizaso	2A	Aintzane Esparza	3A	Irati Iturri	4A	Cristina Escudero
1B	Mirian Erkizia	2B	Violeta Perez	3B	Mirari Zabalza	4B	Irati Baraibar
1C	Nekane Sandoval	2C	Ander Genua	3C	Maitane Iturri	4C	Nahikari Sanchez
1D	Xabier Aizpuru	2D	Oihane Guruzeta	3D	Beñat Carrera	4D	Itziar Perez
1E	Ainhoa Razkin	2E	Eneritz Esteban				
TM	Ixa De Andres	2F	Aitor Salsamendi				

### 25. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak (AZL)

Equipo directivo			
Atezaina	Kristina Beorlegi	Administraria	Itziar Telletxea
Atezaina	Jon Pérez	Administraria	Angel M <sup>a</sup> García

## 26. Irakasleen zerrenda

Ikasgaia	Irakaslea	Ikasgaia	Irakaslea
Euskara	Josune Azpirotz	Biologia	Mirian Erkizia
Euskara	Violeta Perez	Biologia	Bea Zugasti
Euskara	Ainhoa Razquin	Biologia eta Fisika/Kimika	Aitor Esparza
Euskara	Laura Perez	Fisika/Kimika	Irati Iturri
Euskara	Iztiair Perez	Fisika/Kimika + eleanitza	Aitor Salsamendi
Gaztelania	Eva Aranguren	Gorputz Hezkuntza	Susana Sanz De Galdeano
Gaztelania	Fertxu Izquierdo	Gorputz Hezkuntza	Saioa Redin
Gaztelania	Mirari Zabalza	Teknologia	Maria Cuellar
Gaztelania	Irati Baraibar	Teknologia	Mikel Ripodas
Gaztelania	Aintzane Esparza	Teknologia	Iker Martinez
Gaztelania	Nora Monreal	Teknologia	Eguzki Abad
GeoHist.	Beñat Carrera	Plastika	Amaia Zurbano
GeoHist.	Nerea Munarriz/Manuel Larraza	Plastika	Ainhoa Arratibel
GeoHist.	Nahikari Sanchez	Balio Etikoak	Xabier Aizpuru
GeoHist.	Ander Genua	Balio Etikoak	Eneritz Esteban
GeoHist.	Juan Latienda	Frantsesa	Luna Martinikorena
Ingelesa	Mikel Lizaso	Musika	Sara Lamelas
Ingelesa	Julen Pastor	Musika	Maitane Iturri
Ingelesa	Nekane Sandoval	Ekonomia	Mikel Ollo
Ingelesa	Cristina Escudero	Orientazailea	Emilio Galera
Matematika	Oihana Atxaga	PT	Ixa De Andres
Matematika	Andoni Tolosa	PT	Patxi Gorriz
Matematika	Irati Zabaleta	PT	Edurne Unanua
Matematika	Sandra Blanco	PT	Itxaso Agirre
Matematika	Oihane Guruzeta	Erljioa	Iñaki Aizpurua
Matematika	Itziar Bardaji		